

Enpresak euskaraz egitea nahi du ikasleen %66k

- 2010. urtean Buruntzaldeko Lanbide Heziketako 5 ikastetxetako 185 ikaslek erantzundako galdetegiaren emaitzetako bat da. %81ek uste du enpresa arduradunek euskara jakin beharko luketela, %78 prest dago lanerako beharko dituen hizkuntzak ikasteko eta %65 dira lana euskaraz egin nahiko luketenak. Amaitzeko, datu esanguratsua: %94 dira hizkuntza-kudeaketa enpresari baliagarria zaiola uste dutenak. Datu hauek ikusita, Buruntzaldeko udalek erabaki dute Lanbide Heziketako ikasleei eragiten dieten bi proiektuekin aurrera egitea: Motibazio saioak eta Praktikak euskaraz egiteko.
- Motibazio saioak: Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleentzako 8 hitzaldi emango dira otsaila eta martxoa bitartean. Lehiaketa ere antolatu da, era horretan gaiarekiko motibazioa indartu asmoz. Ikasleen iritziak jasoko dira ondoren eta ikastetxeko sari bana izango da.
- Praktikak euskaraz: 2010. urtean Buruntzaldeko 4 enpresarekin diagnostikoak egin dira jada. Ekintzak adosteko garaia iritsi da orain. Udalen artean adosten ari da zein izango den eskaintza zehatza, eta proposamen hori egingo zaie enpresei. Behin ekintzak adostuta, horien ezartze prozesuan lagunduko zaie, eta, praktika garaia amaitzen, emaitzak ebaluatuko. Ikasturtea amaitu baino lehen, beste 5 enpresa identifikatuko dira, eta diagnostikoa egitea proposatuko zaie.



Deskonturik nahi al duzu?

- Bada Donostiako zenbait establezimendutan duzun aukera paregabeaz baliatu zintezke oraintxe bertan. Horretarako sartu azpiko estekan, deskontuak lortzeko web orria duzu bertan. 24 ordu dituzu eguneko eskaintza eskuratzeko.
- Eta gainera, negozio baten jabe zara? Eskaintza interesgarriren bat al duzu? Ez galdu aukera eta jar zaitez antolatzaileekin harremanetan.
- Informazio gehiago [hemen](#)



Diru-laguntzak direla eta!

- Eusko Jaurlaritzak: 2010ari dagozkion diru-laguntzak zurrizteko epea 2011ko urtarrilaren 31n amaituko da. Badaezpada izan gogoan 2010eko ekainaren 4ko ebazpenak dioena [klikatu](#)
- Gipuzkoako Foru Aldundia: 2.019.490 € jarriko ditu 2011n euskararen erabilera eta normalizazioa bultzatzeko. Besteak beste esparru hau ere lagunduko du: arlo sozio-ekonomikoan euskararen erabilera planak eta ikerketa proiektuak. Eskaerak urtarrilaren 25a baino lehen aurkeztu beharko dira. Informazio gehiago [hemen](#)

Nabigatzailea euskaraz jartzea uste baino errazagoa da

- Eta erraza izateaz gain baita onuragarriagoa ere. Zenbat aldiz esan ote diozun zeure buruari “nabigatzailea euskaraz jarriko nuke baina...”. Oraingoan ez daukazu aitzakiarik. Jarraian datozen instrukzioei jarraitzea nahikoa izango da eta aukera emango dizu web orrietako informazioa euskaraz bistartzeko.
- Informazio gehiago [hemen](#)

Lantokia euskalduntzeko zenbait aholku

- Joxpi Irastortzak (Emun-teknikaria) eman dizkigu azken aurreko Argia aldizkarian horretarako zenbait aholku (2.259. alea). 2010eko uztailean aurkeztu zuen doktorego tesia. Besteak beste, motibazioaz zera dio “Jarreraren eltzeta pizteko sua behar da eta su hori intentzioa edo konpromisoa da”.
- Informazio gehiago [hemen](#)



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urdineta eta Usurbilgo Udakik. Euskarako Batzordeak.

www.buruntzaldea.org